

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Hiru Administrazio Orokorreko teknikari plaza txanda ireki eta lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak.

2026ko urtarrilaren 19an Tokiko Gobernu Batzordeak honakoa erabaki zuen:

Lehena. Hiru administrazio orokorreko teknikari plaza txanda ireki eta lehiaketa-oposizio bidez hautatzeko prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak onartzea.

Bigarrena. Deialdia eta oinarriak espezifikoak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Zarauzko Udalaren webgunean eta iragarkitaulan, eta haren laburpen bat *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzea.

Zarauz, 2026ko urtarrilaren 20a.—Xabier Txurruka Fernandez, alkatea. (538)

Administrazio Orokorreko teknikarien hiru plaza txanda ireki eta lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak.

1. Deitutako plazen datuak.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

Bases específicas y convocatoria del proceso selectivo para la provisión por turno libre y concurso-oposición de tres plazas de técnico/a de Administración General.

Mediante acuerdo de Junto de Gobierno Local de 19 de enero de 2026, se adoptaron los siguientes acuerdos:

Primero. Aprobar la convocatoria y las bases específicas del proceso selectivo para el acceso, por turno libre y concurso-oposición, para la provisión de tres plazas de técnico/a de administración general.

Segundo. Ordenar la publicación de la convocatoria y las bases específicas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página web y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zarautz y un extracto del mismo en el *Boletín Oficial del Estado*.

Zarauz, a 20 de enero de 2026.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernández. (538)

Bases específicas del proceso selectivo para la provisión por turno libre y concurso-oposición de tres plazas de técnico/a de Administración General.

1. Datos de las plazas convocadas.

Mota / Tipo Txanda irekia Turno libre	Izenburua / Título Administrazio Orokorreko Teknikarien 3 plaza behin betiko betetzea Provisión definitiva de 3 plazas de Técnico/a de Administración General	
	Orokorra Acceso general	3 Plaza / 3 plazas

2. Deialdiaren esparru orokorra.

Oinarri espezifiko hauek Zarauzko udalaren zerbitzura karre-rako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoa osatzen dute. 2023ko abuztuaren 10ean argitaratu ziren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2025eko uztailaren 11n horien aldaketa, eta aplikagarriak dira hautaketa-prozesu honetan.

3. Deialdiaren xedea.

3.1. Deialdi honen xedea da A sailkapen-taldeko A1 azpitaldeko hiru plaza (Administrazio Orokorreko Eskala, Teknikarien Azpieskala) behin betiko betetzea sarbide orokorreko modalitatean eta txanda ireki eta lehiaketa-oposizio bidez.

3.2. Deitutako plazak 2024ko eta 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintzetan sartuta daude.

3.3. Deitutako plazak II. eranskinean zerrendatutako lanpostuen dotazioei dagozkie.

3.4. Plazei atxikitako postuek C2 hizkuntza-eskakizuna daukate (derrigortasun-data iraungita).

3.5. Hautaketa-sistema: lehiaketa-oposizioa.

2. Marco general de la convocatoria.

Las presentes bases específicas completan lo dispuesto en las bases generales reguladoras de los procesos selectivos para el ingreso como funcionario de carrera al servicio del ayuntamiento de zarautz (publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de agosto de 2023) y en su modificación (publicada el 11 de julio de 2025), aplicables al presente proceso selectivo.

3. Objeto de la convocatoria.

3.1. Es objeto de la presente convocatoria la provisión definitiva, por turno libre y mediante concurso-oposición, de tres plazas, por la modalidad de acceso general, pertenecientes a la Subescala Técnica de la Escala de Administración General.

3.2. Las plazas convocadas están incluidas en las Ofertas de Empleo Público de 2024 y 2025.

3.3. Las plazas convocadas están asociadas a las dotaciones de puestos que se relacionan en el anexo II.

3.4. Los puestos asociados a las plazas tienen perfil lingüístico C2, con preceptividad vencida.

3.5. El sistema selectivo es de concurso-oposición.

3.6. Oinarri hauetan eta gainerako araudi orokor aplikagarrian xedatutakoek arautuko dute deialdia.

3.7. Oposizio faseko gutxienez ariketa bat gainditu arren deialdiko plaza eskuratzen ez duten izangaiek aldi baterako lan-poltsa bat osatuko dute. Lan-poltsa sortzeko honako hurrenkera jarraitu da: lehenengo, ariketa guztiak gainditu arren plaza lortu ez duten pertsonak sartuko dira (gainditutako ariketa guztien guztizko puntuazioaren arabera); ondoren, lehen hiru ariketak gainditutakoak (irizpide berdina jarraituz); gero, bi ariketa gainditutakoak; eta, azkenik, lehenengo ariketa gainditutakoak.

C2 hizkuntza-eskakizuna ezarria duten lanpostuetarako, hizkuntza-eskakizun hori daukaten izangaiei egingo zaie lan-eskaintza, aipatutako hurrenkera, baina C1 hizkuntza-eskakizuna duten izangaiek ere lan-poltsa osatuko dute, eta C2 hizkuntza-eskakizuna duen izangairik lanerako prest ez badago, C1 dutenei egingo zaie lan-eskaintza, dagokion hurrenkera jarraituz.

4. Parte hartzeko baldintzak.

4.1. Oposizio-lehiaketan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, izangaiek honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dituzte, funtzio publikoan sartzeko jarritako baldintza orokorrekin utzi gabe.

a) Zuzenbideko gradua, Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko gradua, Politika Zientziako eta Administrazio Publikoko gradua, Ekonomiako gradua edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua edo baliokidea edukitzea.

b) Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

c) Plazari dagozkion zereginak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea. Bederatzigarren oinarri orokorrean araututakoaren arabera egiaztatuko da hori.

d) Derrigorrezko C2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, dela hautaketa-prozesuan zehar egingo diren proben bidez, dela indarrean dagoen araudiaren arabera eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen edo baliozkotzen duen dokumenturen bat aurkeztuta.

4.2. Baldintza guztiak beteta eduki beharko dira eskabi-deak aurkezteko epea amaitzen den egunerako –zazpigarren oinarrian euskarari buruz ezarritakoa izan ezik–, eta esleitutako lanpostuaz jabetu arte mantendu beharko dira.

4.3. Parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa hautaketa-prozesua amaitzean entregatuko da, eta 5.5 eta 11.1 oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera egingo da.

5. Izangaiek onartzea, epaimahai kalifikatzailea eta prozesuaren informazioa.

5.1. Parte hartzeko eskaerak bosgarren oinarri orokorrean aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira, Herritarren Arreta Zerbitzuan emango den eredu ofizialaren bidez (Kale Nagusia 29, Zarautz) edo Zarauzko Udalaren egoitza elektronikokoan eskuragarri dagoen online tramite espezifikoaren bidez.

5.2. Izangaiek seigarren oinarri orokorraren arabera onartuko dira.

5.3. Hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzailea zazpigarren oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera eratu eta arautuko da.

3.6. La convocatoria se registrará por lo dispuesto en las presentes bases, así como en la restante normativa general de aplicación.

3.7. Las personas aspirantes que, habiendo superado al menos un ejercicio de la fase de oposición, no accedan a las plazas objeto de la convocatoria, constituirán una bolsa de trabajo temporal. La bolsa de trabajo se crea siguiendo el siguiente orden: primero, las personas que han superado todos los ejercicios sin haber obtenido plaza (en función de la puntuación total de todos los ejercicios aprobados); después, las que han superado los tres primeros ejercicios (siguiendo el mismo criterio); a continuación, las que han superado dos ejercicios; y, por último, las que han superado el primer ejercicio.

Para los puestos que tengan asignado el perfil lingüístico C2, se realizará la oferta de empleo a las personas aspirantes que dispongan dicho perfil, en el orden indicado. Sin embargo, también formarán parte de la bolsa de trabajo las personas aspirantes con perfil lingüístico C1. En caso de no existir candidatas disponibles con el perfil lingüístico C2, se realizará la oferta a las que tengan perfil lingüístico C1, siguiendo el orden correspondiente.

4. Requisitos de participación.

4.1. Para la admisión y, en su caso, participación en el concurso-oposición, las personas aspirantes deben reunir los siguientes requisitos específicos, sin perjuicio de los requisitos generales establecidos para el acceso a la función pública:

a) Estar en posesión del título de Grado en Derecho, Grado en Ciencia Política y Gestión Pública, Grado en Ciencia Política y Administración Pública, Grado en Economía o Grado en Administración y Dirección de Empresas, o equivalente.

b) En el caso de las titulaciones obtenidas en el extranjero se deberá estar en posesión de la correspondiente convalidación o de la credencial que acredite, en su caso, la homologación.

c) No padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico alguno que impida el normal desempeño de las funciones propias de la plaza, lo que se acreditará de acuerdo con lo regulado en la base general novena.

d) Acreditación del perfil preceptivo C2 de euskera, bien a través de las pruebas que se efectuarán a lo largo del proceso selectivo, bien mediante la presentación de alguno de los documentos que acredite o convalide el perfil exigido conforme a la normativa vigente.

4.2. Todos los requisitos deberán poseerse en la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias, salvo lo establecido en la base séptima respecto del euskera, y deberán mantenerse hasta la toma de posesión de los puestos adjudicados.

4.3. La documentación acreditativa de los requisitos de participación se entregará a la finalización del proceso selectivo y se realizará en los términos de la base general 5.5 y 11.1.

5. Admisión de personas aspirantes, tribunal calificador e información del proceso.

5.1. La presentación de solicitudes de participación se realizará conforme a lo previsto en la base general quinta y a través del modelo oficial que se facilite en el Servicio de Atención Ciudadana (Kale Nagusia 29, de Zarautz), o del trámite online específico disponible en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Zarautz.

5.2. La admisión de personas aspirantes se realizará conforme a la base general sexta.

5.3. El tribunal calificador del proceso selectivo se constituirá y se registrará por lo dispuesto en la base general séptima.

5.4. Deialdiaren argitalpena eta deialditik eratorritako komunikazioak eta jakinarazpenak oinarri orokorretan kasu bakoitzerako xedatutakoaren arabera egingo dira.

6. Hautaketa-prozesua.

6.1. Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa da, eta hautaketa-prozesua oinarri honetan xedatutakoaren arabera garatuko da, bederatzigarren oinarri orokorrean xedatutakoa osatzen baitu.

6.2. Oposizio-fasea.

* 1. ariketa: gai-zerrenda orokorrari buruzko ariketa (oinarri orokorren I. eranskina). Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Epaimahaiak ezartzen duen denboran, hautazko erantzunen galdera-sorta bat idatziz erantzun beharko da. Erantzun bakoitza izango da baliozkoa, eta galderak gai-zerrenda orokorrean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

Ariketak 55 galdera izango ditu; azken 5 galderak erreserba-koak izango dira.

Ariketa hau gehienez 10 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 5 puntu beharko dira.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: «Puntuazioa = $A - (E/(N-1))$ »; azalpena: «A»: erantzun zuzenen kopurua; «E»: erantzun okerraren kopurua (erroreak); eta «N»: galdera bakoitzaren hautazko erantzunen kopurua. Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

* 2. ariketa: gai orokorrei eta espezifikoei buruzko ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Proba honetan, idatziz erantzun beharko dira Epaimahaiak deialdiko gai orokorrez eta espezifikoez prestatutako galdera teorikoak.

Ariketa hau kalifikatzeko, hautagaiek galderei emandako erantzunetan adierazitako ezagutza ebaluatuko da, zuzentasun-, egokitasun-, osotasun- eta zehaztasun-maila baloratuz, eta, hala badagokio, dagokion araudia azaldu eta adierazita.

Ariketa honek Epaimahaiak ezartzen duen iraupena izango du, baina ezin izango da hiru ordutik gorakoa izan.

Atal hau gehienez 25 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 12,5 puntu beharko dira.

* 3. ariketa: Ariketa praktikoa eta irakurketa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Bi zati izango ditu:

— Lehen zatia:

Lehenengo zatian, idatziz garatu beharko dira epaimahaiak planteatzen dituen galdera praktikokoak; galdera horiek zerikusia izango dute deialdiaren gai-zerrenda espezifiko eta orokorrenekin eta/edo deitutako lanpostuaren eginkizunekin.

Ariketak egiten dituzten bitartean, izangaiek beharrezkotzat jotzen dituzten lege-testu guztiak erabili ahal izango dituzte; hor-taz, probetara eraman egin beharko dituzte.

Ariketa honek Epaimahaiak ezartzen duen iraupena izango du, baina ezin izango da lau ordutik gorakoa izan.

Zati honetan, planteatutako arazo praktikokoak ebazteko ezagutza teorikoak aztertze eta modu arrazoituari aplikatzeko gaitasuna baloratuko da; batez ere, honako hauek baloratuko dira: arrazoiaketa-gaitasuna, ondorioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika, araudi aplikagarriaren ezagutza eta interpretazio egokia, eta azalpen egokia, behar bezala egituratua eta testu-guruan kokatua izatea.

Atal hau gehienez 35 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 17,5 puntu beharko dira.

5.4. La publicación de la convocatoria, así como las comunicaciones y notificaciones derivadas de la convocatoria se realizarán conforme a lo dispuesto para cada caso en las bases generales.

6. Proceso selectivo.

6.1. El sistema de selección es el de concurso-oposición y el proceso selectivo se desarrollará con arreglo a lo dispuesto en la presente base, que completa lo dispuesto en la base general novena.

6.2. Fase de oposición.

* Ejercicio 1: Ejercicio sobre temario general (anexo I de las bases generales). Obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en contestar por escrito, en el tiempo que establezca el Tribunal, un cuestionario de preguntas de respuesta alternativa, de las que sólo una será válida, referido a las materias que se recogen en el temario general.

El ejercicio constará de 55 preguntas de las cuales las últimas 5 serán de reserva.

Este ejercicio se calificará sobre un máximo de 10 puntos, siendo necesario un mínimo de 5 para superarlo.

La puntuación directa será el resultado de la siguiente fórmula: «Puntuación = $A - (E/(N-1))$ », donde «A» es el número de aciertos, «E» el de errores, y «N» el del número de respuestas alternativas por pregunta. A estos efectos, las preguntas no contestadas no tendrán la consideración de error.

* Ejercicio 2: Ejercicio sobre temas generales y específicos. Obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en contestar por escrito las preguntas teóricas preparadas al efecto por el Tribunal, referentes tanto al temario general como al temario específico de la convocatoria.

Para la calificación de este ejercicio se evaluará el conocimiento de los/as aspirantes manifestado en sus respuestas a las cuestiones planteadas, valorando su grado de corrección, adecuación, integridad y precisión, con indicación y expresión, en su caso, de la normativa correspondiente.

Este ejercicio tendrá la duración que establezca el Tribunal, no pudiendo ser superior a tres horas.

Este apartado se calificará sobre un máximo de 25 puntos, siendo necesario un mínimo de 12,5 para superarlo.

* Ejercicio 3: Ejercicio práctico y lectura. Obligatorio y eliminatorio.

Constará de dos partes:

— Primera parte:

La primera parte consistirá en desarrollar por escrito los supuestos prácticos que plantee el Tribunal, relacionados con el temario tanto específico como general de la convocatoria y/o las funciones de los puestos convocados.

Durante su desarrollo las personas aspirantes podrán, en todo momento, hacer uso de cuantos textos legales consideren necesarios y de los cuales deberán ir provistas a la prueba.

Este ejercicio tendrá la duración que establezca el Tribunal, no pudiendo ser superior a cuatro horas.

En esta parte se valorará la capacidad de análisis y la aplicación razonada de los conocimientos teóricos a la resolución de los problemas prácticos planteados, valorando fundamentalmente la capacidad de raciocinio, la sistemática de planteamiento y formulación de conclusiones, el conocimiento y adecuada interpretación de la normativa aplicable y una exposición apropiada y correctamente estructurada y contextualizada.

Este apartado se calificará sobre un máximo de 35 puntos, siendo necesario un mínimo de 17,5 para superarlo.

— Bigarren zatia:

Bigarren zatian, Epaimahaiaren aurrean irakurriko da ariketa. Funtsean, aztertzeo gaitasuna eta planteatutako arazo praktikoak ebazteko ezagutza teorikoak modu arrazoituari aplikatzeko gaitasuna baloratuko dira.

Azalpena amaitu ondoren, epaimahaiakideek hitz egin ahal izango dute izangaiarekin, proposatutako irtenbideei buruz, eta galderak, objektzioak, planteamendu alternatiboak, zehaztasun-eskaerak edo kasu eta arazo hipotetikoetarako egokitzapenak planteatu ahal izango dituzte, Udala bezalako erakunde konplexu baten errealtatean gertatzen diren egoerak eta rolak simulatzen saiatzeko.

Atal hau gehienez 5 punturekin kalifikatuko da, eta gainditzeko gutxienez 2,5 puntu beharko dira.

* 4. ariketa: proba psikoteknikoak. Derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Test bat (idatzizko zatia) eta elkarriketa pertsonal bat (ahozko zatia) egin beharko dira, izangaiak gai hauetan ebaluatzeko:

— Deitutako plazaie atxikitako lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak: profesionaltasuna, talde-lana, komunikazioa eta aldaketen aurrean erantzun positiboa ematea.

— Deitutako lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasunak.

— Izangaien profil tekniko-humanoa deitutako lanpostuetarako egokia den ebaluatzeko jarrerak.

Ariketa honen gaineko zehaztapen gehiago argitaratuko da hautaketa-prozesuan zehar, beranduenez 3. ariketako behin betiko emaitzak argitaratzen direnean.

Atal hau gehienez 5 punturekin kalifikatuko da. Ariketa osoa gainditzeko, gutxienez 2,5 puntu lortu beharko dira.

* 5. ariketa: Euskara proba. Fase honetara iritsi eta C2 Hizkuntza Eskakizuna egiaztatua ez duten izangaiak euskara proba egin beharko dute, 7. puntuan zehaztutakoaren arabera.

6.3. Lehiaketa-fasea:

Oinarri espezifiko hauetan eta bederatzigarren oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera arautuko da lehiaketa-fasea.

6.3.1. Esperientzia profesionala gehienez 15 punturekin baloratuko da, honela:

a) Administrazio publikoan A1 taldeko lanpostuetan AOT gisa eskusiboki arlo hauetako batean edo gehiagotan egindako zerbitzuak: eguneko 0,014 puntu (gehienez 15 puntu).

— Giza baliabideak edota Antolakuntza.

— Kontratazioa.

— Ondarea.

— Ondare Erantzukizuna.

— Prozedura zehatzaileak.

— Mugikortasuna.

b) Administrazio publikoan A1 taldeko lanpostuetan AOT gisa, aholkulari juridiko edo letratu gisa, Idazkari gisa edo idazkari-kontuhartzailer gisa goiko arloetako zeregin ez-esklusibotan egindako zerbitzuak: eguneko 0,010 puntu (gehienez 12,5 puntu).

c) Administrazio publikoan A2 taldeko aholkularitza juridiko teknikari lanpostuetan eskusiboki a) atalean aipaturiko arloren batean edo gehiagotan egindako zerbitzuak: eguneko 0,007 puntu (gehienez 7,5 puntu).

— Segunda parte:

La segunda parte consistirá en la lectura del ejercicio ante el Tribunal, apreciándose fundamentalmente la capacidad de análisis y la aplicación razonada de los conocimientos teóricos a la resolución de los problemas prácticos planteados.

Una vez terminada la exposición, los miembros del Tribunal podrán dialogar con la persona aspirante acerca de las soluciones que haya propuesto y plantear objeciones, planteamientos alternativos, solicitud de precisiones o adaptaciones a supuestos y problemáticas hipotéticas que traten de simular las situaciones y roles que pueden darse en la realidad en una organización compleja como es el Ayuntamiento.

Este apartado se calificará sobre un máximo de 5 puntos, siendo necesario un mínimo de 2,5 para superarlo.

* Ejercicio 4: Pruebas psicotécnicas. Obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en la realización de un test (parte escrita) y una entrevista personal (parte oral) para evaluar a los/as aspirantes en:

— Las competencias de profesionalidad, trabajo en equipo, comunicación y respuesta positiva al cambio necesarias para el desempeño de los puestos adscritos a las plazas convocadas.

— Las aptitudes precisas para el desempeño de las funciones del puesto convocado.

— Las actitudes para evaluar la mayor o menor adecuación del perfil técnico-humano de las personas aspirantes a los propios de los puestos convocados.

Durante el proceso selectivo se publicarán más especificaciones sobre este ejercicio, a más tardar en la publicación de los resultados definitivos del ejercicio 3.

Este apartado se calificará sobre un máximo de 5 puntos. Se deberá obtener una puntuación mínima de 2,5 puntos en el conjunto del ejercicio, para entender superado el mismo.

* Ejercicio 5: Prueba de euskera. Las personas aspirantes que, habiendo llegado a esta fase, no tengan acreditado el perfil lingüístico C2 deberán realizar la prueba de euskera, de acuerdo con lo especificado en el punto 7.

6.3. Fase de concurso:

La fase de concurso se regirá por lo dispuesto en las presentes bases específicas y en la base general novena.

6.3.1. La experiencia profesional se valorará hasta un máximo de 15 puntos, de la siguiente manera:

a) Servicios prestados en administraciones públicas en puestos del grupo A1 como TAG con funciones exclusivas en una o varias de las siguientes materias: 0,014 puntos por día (hasta un máximo de 15 puntos).

— Recursos humanos y organización.

— Contratación.

— Patrimonio.

— Responsabilidad patrimonial.

— Procedimientos sancionadores.

— Movilidad.

b) Servicios prestados en administraciones públicas en puestos del grupo A1 como TAG, como asesor/a jurídico/a, como secretario/a o como secretario/a-interventor/a con funciones no exclusivas en las materias indicadas: 0,010 puntos por día (hasta un máximo de 12,5 puntos).

c) Servicios prestados en administraciones públicas en puestos del grupo A2 como técnico/a de asesoramiento jurídico, en una o varias de las materias mencionadas en el apartado a): 0,007 puntos por día (hasta un máximo de 7,5 puntos).

d) Administrazio publikoan A2 taldeko aholkularitza juridiko teknika lanpostuetan modu ez-esklusiboan goiko arloetako batean edo gehiagotan egindako zerbitzuak: eguneko 0,005 puntu (gehienez 6,25).

Modu eksklusiboan goian zehaztutako arloetan lan egin dela ulertuko da betetako lanpostuaren funtzioak kontuan izanda, aholkularitza juridikoa arlo horietan eman badu. Modu ez-esklusiboan goian zehaztutako arloetan lan egin duela ulertuko da betetako lanpostuaren funtzioak kontuan izanda, aholkularitza juridikoa arlo horietako batean edo gehiagotan eta beste batzuetan eman badu.

Epaimahaiak modu arrazoituan proposatuko du, kasu bakoitzean, alegatutako merezimenduak zein epigrafetan sartu behar diren.

6.3.2. Prestakuntza: prestakuntza hau gehienez 5 puntu-rekin baloratuko da:

a) Titulazio akademiko ofizialak gehienez 2 punturekin baloratuko dira, baremo honen arabera:

a.1) Unibertsitateko gradu titulua, deialdian parte hartze-ko titulazio baldintza betetzeko erabilitakoaz bestelakoa: 1 puntu tituluko. Titulu hauek izango dira kontuan:

- Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua.
- Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua.
- Zuzenbideko Gradua.
- Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua.
- Politika Zientziako eta Administrazio Publikoko Gradua.
- Ekonomiako Gradua.
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua.
- Administrazio Publikoen Zientzia Juridikoetako Gradua.

a.2) Unibertsitateko master ofiziala Lan Harremanen eta Giza Baliabideen arloan, Administrazio Zuzenbidearen edota Funtzio Publikoaren arloan: 2 puntu tituluko.

b) Administrazio publikoek edo unibertsitateek antolatutako edo homologatutako prestakuntza-ekintzak, 20 ordukoak edo gehiagokoak, honako gai hauetako bati buruzkoak: enplegu publikoa, lan-zuzenbidea, giza baliabideen kudeaketa, gizarte-segurantzia edo laneko arriskuen prebentzioa, kontratazioa, ondare, ondare erantzukizuna, prozedura zehatzaileak edota mugikortasuna. Ondoren ezartzen den baremoaren arabera baloratu-ko dira, eta gehienez ere 5 puntu emango dira.

– 20 ordutik 49ra bitarteko ikastaroak edo prestakuntza ekintzak: 0,25 puntu.

– 50 ordutik 99ra bitarteko ikastaroak edo prestakuntza ekintzak: 0,50 puntu.

– 100 ordutik 249ra bitarteko ikastaroak edo prestakuntza ekintzak: 0,75 puntu.

– 250 orduko edo gehiagoko ikastaroak edo prestakuntza ekintzak: puntu 1.

Deialdi honetako merezimenduen lehiaketa-fasean gehienez ere 20 puntu lor daitezke.

Aurreko merezimenduak egiaztatzeko, 9.4.7 oinarri orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

7. Euskararen ezagutza egiaztatzea.

7.1. Deitutako plazei lotutako lanpostuek C2 hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun-data igarota, eta, beraz, parte hartzeko baldintzetako bat da hizkuntza-eskakizun horri dago-kion euskara-maila egiaztatzea.

d) Servicios prestados en administraciones públicas en puestos del grupo A2 como técnico/a de asesoramiento jurídico, con funciones no exclusivas en una o varias de las anteriores materias: 0,005 puntos por día (hasta un máximo de 6,25 puntos).

Se entenderá que se ha trabajado exclusivamente en las áreas arriba especificadas cuando, en atención a las funciones del puesto desempeñado, haya prestado asesoramiento jurídico en dichas materias. Se entenderá que se ha trabajado de manera no exclusiva en las áreas arriba especificadas cuando, en atención a las funciones del puesto desempeñado, haya prestado asesoramiento jurídico en una o varias de dichas materias y en otras.

El tribunal calificador propondrá motivadamente, caso por caso, los epígrafes en los que deben incluirse los méritos alegados.

6.3.2. Formación: se valorará la siguiente formación sobre un máximo de 5 puntos:

a) Las titulaciones académicas oficiales se valorarán con un máximo de 2 puntos de acuerdo con el siguiente baremo:

a.1) Título de grado universitario distinto del utilizado para el cumplimiento del requisito de titulación para participar en la convocatoria. 1 punto por título. Títulos que se tendrán en cuenta:

- Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos.
- Grado en Fiscalidad y Administración Pública.
- Grado en Derecho.
- Grado en Ciencia Política y Gestión Pública.
- Grado en Ciencia Política y Administración Pública.
- Grado en Economía.
- Grado en Administración y Dirección de Empresas.
- Grado en Ciencias Jurídicas de las Administraciones Públicas.

a.2) Master universitario oficial en la rama de Relaciones Laborales y Recursos Humanos, Derecho Administrativo o Función Pública: 2 puntos por título.

b) Acciones formativas organizadas u homologadas por las Administraciones Públicas o universidades de 20 o más horas de duración sobre alguna de las siguientes materias: empleo público, derecho laboral, gestión de recursos humanos, seguridad social o prevención de riesgos laborales, contratación, patrimonio, responsabilidad patrimonial, procedimientos sancionadores o movilidad. Se valorarán conforme al baremo que se establece a continuación y, en todo caso, con un máximo de 5 puntos:

– Cursos o acciones formativas de 20 a 49 horas de duración: 0,25 puntos.

– Cursos o acciones formativas de 50 a 99 horas de duración: 0,50 puntos.

– Cursos o acciones formativas de 100 a 249 horas de duración: 0,75 puntos.

– Cursos o acciones formativas de 250 o más horas de duración: 1 punto.

El número máximo de puntos de la Fase de Concurso de méritos de la presente convocatoria no podrá exceder de 20 puntos.

A efectos de la acreditación de los méritos anteriores, se estará a lo dispuesto en la base general 9.4.7.

7. Acreditación del conocimiento de euskera.

7.1. Los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas tienen asignado el perfil lingüístico C2 con fecha de preceptividad vencida, por lo que constituye un requisito de participación la acreditación del nivel de conocimiento de euskera correspondiente a dicho perfil.

Hala ere, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 37. artikuluari jarraituz, derrigorrezko C2 hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan, hautagaiek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen ez badute, C1 hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaio lanpostu horri, bakar-bakarrik deialdi horretako lanpostua betetzeko.

7.2. Eskatzen den euskara-maila egiaztatzeko, euskara-proba gainditu beharko da, 9.3 oinarri orokorraren arabera.

7.3. Hala ere, proba hori egitetik salbuetsita egongo dira 9.3.3 oinarri orokorraren arabera honako bi egoera hauetako batean daudela egiaztatzen dutenak, dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztuta:

a) C2 hizkuntza-eskakizuna edo hizkuntza-eskakizun horrekin baliozkotutako titulu edo ziurtagiri bat lehenago lortu dutenak, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren eta horren aldaketan arabera (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

b) Dagokion baliozkotzea lortu dutenak, 47/2012 Dekretuaren arabera (apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

8. Epaimahai kalifikatzailearen proposamena.

8.1. Oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko ariketa baztertzailer guztiak gainditu dituzten izangaien kalifikazioa zehaztuko du epaimahaiak, 10.1 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

8.2. Deitutako plazak hainbat lanposturi lotuta daudenez, lanpostua hautatzeko prozesua egingo da, 10.3.6 oinarri orokorrean aurreikusitakoaren arabera.

8.3. Bai azken kalifikazioen zerrenda bai hautatutako izangaiak argitaratu egingo dira, 10.7 oinarri orokorrean aurreikusitako baldintzetan.

8.4. Lanposturen bat betetzen ez bada, ez dagoelako proba guztiak gainditu dituen izangai nahikorik, epaimahaiak hutsik utziko du deitutako plaza.

9. Dokumentazioa aurkeztea.

Izangaiak laugarren oinarrian aipatutako parte-hartze baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, hamaikagarren oinarri orokorrean aurreikusitako epeetan eta moduan.

10. Praktiketako funtzionario izendatzea.

10.1. Oinarri hauetan eskatzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen direla agiri bidez egiaztatu ondoren, epaimahaiak proposatutako izangaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira, hamabigarren oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera.

10.2. Praktiketako funtzionarioek praktika- eta prestakuntza-aldi bat egingo dute; baztertzailer izango da eta 6 hilabeteko iraupena izango du. Aldi horretan, biak sartuko dira: prestakuntza eta praktikaldia. Praktika- eta prestakuntza-aldi horrek hautaketa-prozesua osatuko du, beste fase bat bezala; Gai edo Ez Gai kalifikazioa jasoko du, eta hamabigarren oinarri orokorrean eta oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

10.3. Praktikaldia egiten ez bada, edo praktikaldia gainditzeko eskatzen den gutxieneko gaitasuna egiaztatzen ez badute, praktiketako funtzionario izateari utziko diote, eta lanpostu berrian karrerako funtzionario izendatzeko izan ditzaketen esku-bide guztiak galduko dituzte.

No obstante, según lo dispuesto en el artículo 37 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, en los procesos de selección y provisión de puestos de trabajo que tengan asignado el perfil lingüístico C2 y cuya fecha de preceptividad se encuentre vencida, en caso de no acreditarse este por ninguna de las personas candidatas, se aplicará a dicho puesto el perfil lingüístico C1 a los únicos efectos de cobertura en tal convocatoria de selección o provisión.

7.2. El nivel de conocimiento de euskera exigido se acreditará mediante la superación de la prueba de euskera, según la base general 9.3.

7.3. No obstante, quedarán exceptuados de realizar dicha prueba quienes acrediten en los términos de la base general 9.3.3, mediante la presentación de la documentación justificativa correspondiente, encontrarse en alguna de estas dos circunstancias:

